

Laudio, 2023ko uztailaren 28an

Laudioko Udalak udalerriko bidegorri sarea berrantolatuko du herritarren eskutik

Bidegorri sarea udalerrian zehar ezarri zuen enpresa esleipendunak marrak berriro margotzeari bere kabuz ekin dionez, Gobernu Taldeak herri-kontsulta egingo du herritarren iritzia ezagutzeko

Laudioko Udaleko Gobernu Taldeak, Ainize Gastaka buru duela, politika parte-hartzailea eta gardena gauzatzeko bidean jarraitzen du. Horregatik, datozen hilabeteetan partaidetza-prozesu bat jarriko du abian udalerrri barruko mugikortasunari heltzeko eta herria zeharkatzen duen bidegorria berrantolatzeko.

Trafikoarekin partekatutako bidegorri sarea udalerrian zehar ezarri zuen enpresa esleipendunak urrian hasi zituen margotze-lanak, baina zoladura gaineko lerroak ezabatu egin ziren neguko denboraldiko klimatologiaren ondorioz -hezetasunak eta hotzak pintura behar bezala ez itsastea eragin zuten-. Orain, enpresa esleipendunak bidegorri sarea margotzeari ekin dio berriro ere, baina bere kabuz.

"Enpresari bere garaian egindako lana erreklamatu zitzaion lineak zorutik ezabatu zirelako. Erreklamazioari erantzunez, enpresak, bere kabuz, marrak berriz margotzeari ekin dio, Udalarekin harremanetan jarri gabe", adierazi du Nerea González Kirol zinegotziak.

Horren aurrean, Gobernu Taldeak gaiari heldu eta bidegorriak berrantolatzeko proiektu bat abian jartzeko konpromisoa hartu du, herritarren parte-hartzean oinarrituta.

"Gure herritarren eskutik bultzatuko ditugun beste prozesu bat baino ez da hau; haiek erabaki behar dute etorkizuneko Laudioa", amaitu du zinegotziak.